

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA / BASQUE INSTITUTE

5988

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 11koa, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariarena, euskara eta euskal kulturako irakurlea hautatzeko deialdia irekitzeko dena.

Etxepare Euskal Institutua (aurrerantzean, EEI) Sortzeko eta Arautzeko 3/2007 Legearen 3.b) artikulua helburu hau xedatzen du aipatutako Institutuarentzat: «Euskal Kultura bere hizkuntza ofizialetako edozeinetan eta zeinahi adierazpen, euskarri, bide eta adierazmoldetan kanpoan ezagutarazten eta hedatzen laguntzea, bereziki euskaraz sortutako kultura eskaintza sustatuz eta hedatuz».

Etxepare Euskal Institutuaren antolaketa- eta jarduera-araudia onartzen duen maiatzaren 13ko 88/2008 Dekretuaren 19. artikulua xedatzen du Institutuaren helburuen artean dagoela munduan zeharreko unibertsitateetan eta beste zentro batzuetan euskararen presentzia, azterketa eta ikasketak sustatzea, batik bat unibertsitateetan irakurletzak ezartzea bultzatuz.

Ondorioz, Etxepare Euskal Institutuak erabaki du. Alemaniako Frankfurteko Goethe euskara eta euskal kulturako irakurlea hautatzeko lehiaketa publikoaren deialdia egitea.

Hori dela eta,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Deialdiaren helburua.

Deialdi honen helburua da euskara eta euskal kulturako irakurlea hautatzea, Alemaniako Frankfurteko Goethe Unibertsitatean aritzeko.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Etxepare Institututik deialdi honetan ikasturte bakoitzean bideratutako guztizkoa:

– Frankfurteko Goethe Unibertsitaterako hogeita hamaika mila bederatzehun eta laurogeita hamaika euro eta hirurogeita hamar zentimo (31.991,7 euro) ikasturteko.

Aurreko baliabide ekonomiko guztiak irakurletzak mantentzeko gastuak finantzatzeko erabiliko dira. Bideratutako zenbateko hori ez da bat etorriko, zehatz-mehatz, irakurlearen soldatarekin. Kontuan hartu behar da irakurletza kokatuta dagoen herrialdeko eta unibertsitateko araudiarekin bat, zergak eta bestelako kenkari eta atxikipenak daudela.

Unibertsitateko transakzio guztietan dibisa patroia euroa izango da.

3. artikulua.– Hautagaiek bete behar dituzten baldintzak.

Unibertsitateko graduako titulua (edo lizentzia), euskarako C1 (3. HE) maila edo baliokidea izatea eta Alemaneko B2 maila egiaztatua izatea. Euskal Filologia, Euskal Ikasketak edo Itzulpengintza eta Interpretazio (A hizkuntza: euskara) gradua edo lizentzia dutenak lehenetsiko dira eta euskara arloko masterrak; baita euskararen C2 (4. HE) maila egiaztatuta izatea ere. Hau dena, 11. artikuluko hautapen-irizpideen arabera.

4. artikulua.– Lan-baldintza zehatzak helburuko unibertsitatearen arabera:

Eskola-orduak: 20 ordu asteko.

5. artikulua.– Egonaldiaren baldintzak helburuko unibertsitatean.

Hautatua deialdi honen helburu den tokian tokiko unibertsitateari atxikiko zaio, 4. artikuluan agertzen diren baldintzen arabera. Tokian tokiko unibertsitatearen herrialdean indarrean dagoen legediaren araberrako eta unibertsitate bertako araudiaren araberrako kontratua sinatuko du eta unibertsitate kontratugilearen klausula zehatzak bete beharko ditu, bereziki kontratuak irauten duen bitartean aplikagarri zaion ordainsarien eta zergen erregimenari dagokionez.

Euskara eta euskal kulturako irakurle izateak ez dakar inolako lan- edo administrazio-harremanik Etxepare Euskal Institutuarekin eta, ondorioz, Institutu honek ez du bere gain hartuko irakurleak helburuko unibertsitatearekin duen kontratu-harremanetik edo bere ekintzetatik eratorritako erantzukizunik, bereziki bere funtzioak betetzean sor daitezkeen kalteengatik.

Etxepare Euskal Institutuak bere gain hartuko ditu tokian tokiko unibertsitateara lehen joan etorriaren gastuak. Edozein salbuespen Etxepare Euskal Institutuarekin adostu beharko da.

6. artikulua.– Irakurle izateak Etxepare Euskal Institutuarekiko ondorengo konpromiso eta betebeharrak dakartza:

- Hautagaitzako onartze eta harrera saioko agiriak sinatzea.
- Unibertsitateak esleitutako ordutegia betetzea.
- Euskara eta euskal kulturaren programa didaktikoa egitea (ikasturte hasierako fitxa) ikasturtearen hasieran. Programa hori Etxepare Euskal Institutura bidali beharko da.
- Ikasleen ebaluazioa egitea eta ikastaroa kudeatzea, bai eta ekintza akademikoak antolatzea ere (hitzaldiak, literatura jardunaldiak...) euskara ikertzeko eta euskal kultura sustatzeko asmoz.
- Tokian tokiko irakasleak eta ikertzaileak euskara, euskal kultura eta antzeko gaiekin zerikusia duen guztian lagundu eta orientatzea.
- Behean zehazturiko datarako helburuko unibertsitateara bertaratzea, klaseak ematen hasteko. Klaseak ematea ikasturte amaiera arte, hala badagokio luzatzeko aukerarekin. Kontratuaren luzapena urtez urte egingo zaio irakurleari, betiere urteroko berritzea, unibertsitateak eta Etxepare Euskal Institutuak berritzearekin adostasuna izateari baldintzatuta dagoelarik.
- Frankfurtoko Goethe Unibertsitateari dagokionez, hautatutako pertsona (irakurlea) gehienez 4. ikasturtea osatu arte izango da irakurle postuan. Salbuespen gisa, eta betiere Etxepare Euskal Institutuak eta unibertsitateak euskal ikasketen sendotze estrategiarako egokitzat adostutako irizpide eta prozeduraz, aztertu ahal izango da behin-behinekoa izango den luzatzeko aukera. Luzapen horren gehienezko epea urtebetekoa izango da edo unibertsitatearekin euskal ikasketen indartzeko estrategiarako adostutako trantsizio epea.

Bertaratzeko data:

- 2025eko apirilaren 1a baino lehenago Frankfurtoko Goethe Unibertsitateara bertaratzea, klaseak ematen hasteko.

– 2025-2026 ikasturtearen amaieran, irakurleak urteko memoria bat idatzi behar du, irakurlearen sailaren oniritziarekin. Urteko txostena Etxepare Euskal Institutura bidali behar da, hitzarmena behar bezala betetzen dela gainbegira dezan eta irakurlearen lana ebalua dezan.

– Goian aipatutako konpromisoak ez betetzeak irakurlea tokian tokiko unibertsitatean ez jarraitzea ekar dezake.

– Irakurleak konpromisoa hartzen du, halaber, Etxepare Euskal Institutuak antolatzen dituen Prestakuntza-ikastaroetan parte hartzen saiatzeko.

7. artikulua.– Irakurletzari dagozkion zenbatekoak ordaintzea.

Etxepare Euskal Institutuak tokian tokiko unibertsitateari irakurletzak mantentzetik eratorritako gastuen finantzaketarako zenbatekoen ordainketak egingo dizkio.

Tokian tokiko unibertsitateari dagokio Etxepare Euskal Institutuak egindako diru-ekarpenak justifikatzea.

Azkenik, Unibertsitateak ordainduko dio irakurleari dagokion soldata.

8. artikulua.– Eskabideak aurkezteko lekua eta epea.

1.– Hautagaiek eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz aurkeztu ahalko dituzte:

– Aurrez aurre: eskabideak helbide honetan aurkeztuta: Etxepare Euskal Institutua, Tabakalera erai-kina, Andre Zigarrogileen Plaza 1, 3. solairua, 20012 Donostia, goizeko 08:30etik 14:00etara. Halaber, Eusko Jaurlaritzako Zuzenean bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

– Bide elektronikoa: www.euskadi.eus gunean aurkeztu ahalko dira eskabideak, artikuluko 2. atalean adierazitako helbidean. Eskabidea egiteko eta dokumentazioa aurkezteko bide horietako bat erabiltzeak –presentziala edo elektronikoa– ez du esan nahi bidez aldatu ezin denik prozeduraren ondorengo izapideetan, alegia, edonoiz aldatu daiteke bidea.

2.– Eskabideak aurrez aurre edo bide elektronikoa erabiliz nola izapidetu, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak azaltzen dituzten argibideak [euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)-en helbide honetan daude ikusgai:

Frankfurteko Goethe Unibertsitatea:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1042334>

3.– Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz egin daitezke: <https://www.euskadi.eus//nirekudeaketak>

4.– Identifikazio elektronikorako, bitarteko elektronikoren bat izan beharko du eskatzaileak, onartua eta Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa argitaratua.

5.– Eskabidea egiterakoan, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute hautagaiek:

– Nortasun-agiria, AIZ edo pasaportearen kopia. Espainiako nortasun-agiria baduzu, hautazkoa duzu fotokopia aurkeztea

– Unibertsitate mailako tituluaren kopia.

– Euskara-maila egiaztatzen duen agiriaren kopia. HABE, EGA, IVAP edo Hizkuntza Eskola Ofizialeko agiria baduzu, hautazkoa duzu fotokopia aurkeztea.

– Proiektu pedagogikoa, euskarako eta euskal kulturako programazioek osatua. Euskarako lehen mailetan irakasteko programazio laburra aurkeztu beharko da: helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak (teknikoak eta didaktikoak), eskoletarako ikasleekin erabiliko den oinarrizko bibliografia eta ikasleek beren gisara erabiltzeko bibliografia adieraziz. Euskal Kulturako gai ezberdinei (musika, zinema, antzerkia, eskultura...) buruzko programazio laburra ere aurkeztu beharko da: helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak (teknikoak eta didaktikoak), eskoletarako ikasleekin erabiliko den oinarrizko bibliografia eta ikasleek beren gisara erabiltzeko bibliografia adieraziz. Proiektu pedagogiko guztiaren luzera gehienez 9000 karakterekoa (zuriuneak barne) izango da. Karaktere kopurua gainditzen duten proiektuak ez dira onartuko. Proiektu pedagogikoa euskaraz idatzia egongo da. Proiektu pedagogikoa word formatuan atxiki beharko da, edo karaktereak automatikoki kontatzea ahalbidetzen duen formatu batean.

– Hautagaiak aipatzen dituzten meritu guztiak (hizkuntzak, emandako ikastaroak, jasotako formazioa...) ziurtagirien bidez frogagarriak izan beharko dira. Horretarako, hautagaiak agiri guztien fotokopiak aurkeztu beharko dituzte eskabidea egitean. Bestalde, aukeratutako hautagaiak notarioak konpultsatutako fotokopiak edo aurkeztutako fotokopien jatorrizko agiriak aurkeztu beharko ditu Etxepare Euskal Institutuak hala eskatutakoan, horrela Etxepare Euskal Institutuan agiri horiek egiaztatu ahal izango dira. Hala egin ezean, deialditik kanpo geratuko da dagokion hautagaia.

Eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko zeinahi hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango du eskabidea, atxikitako agiriekin batera. Halaber, eskabidearen ondoriozko jardunetan, eta prozedura osoan, eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

6.– Eskabideak aurkezteko, hilabeteko epea egongo da, xedapena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. artikulua.– Hautagaiaren betekizun jakin batzuk egiaztatzea.

1.– Bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaekin, interesdunek eskubidea dute ez aurkezteko administrazio jardulearen esku dauden edo beste administrazio batek egindakoak diren eskatutako agiriak. Horrela, Administrazioak haiek kontsultatu eta atera ahal izango ditu, interesdunak aurka egin ezean. Kasu horretan, eskatzaileak aurkeztu beharko ditu.

Hautagaiak espainiar nortasun agiri edo pasaportetik ez duenean, pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko du. Hautagaiak unibertsitate bateko titulua duenean, fotokopia aurkeztu beharko du eta, hala badagokio, eskatutako beste edozein agiri ere aurkeztu beharko du.

2.– Bat eginez abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin, betebeharrak egiaztatuko dira, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez:

– Hautagaiak ez izatea zigor administratibo edo penalik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarrenik, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik ere.

– Hautagaiak eskabidean eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla adieraztea, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela adieraztea.

10. artikulua.– Hautapen-batzordea.

Eskabideak aztertu eta ebaluatzeko hautapen-batzorde bat eratuko da. Balorazio-batzordeko kideak izendatzerakoan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako

Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 3.10 artikuluan xedatutakoa beteko da.

Batzordearen osaera EHAAn argitaratuko da.

11. artikulua.– Hautapen-irizpideak.

Hautagaiak baremo honen arabera hautatuko dira, eta guztira gehienez 25 puntu lortu ahal izango dira:

1.– Unibertsitateko titulua eta HE. Gehienez 5 puntu, irizpide hauen arabera:

Euskal Filologia, Euskal Ikasketak, Itzulpengintza eta Interpretazioa (A hizkuntza euskara): 5 puntu.

Giza zientzien, Gizarte-zientzien eta Letretako gradu edo lizentziak, baldin eta 4. HE egiaztatuta badute: 4 puntu.

Giza zientzien, Gizarte-zientzien eta Letretako gradu edo lizentziak baldin eta EGA edo 3. HE egiaztatuta badute: 3 puntu.

Gainerako gradu edo lizentziak, baldin eta 4. HE egiaztatuta badute: 3 puntu.

Gainerako gradu edo lizentziak, baldin eta EGA edo 3. HE egiaztatuta badute: 2,5 puntu.

2.– Eskarmentua euskara eta beste hizkuntzak irakasten. Gehienez 5 puntu, irizpide hauen eta egiazta daitekeen ordu kopuruen arabera.

Euskara irakatsi izana unibertsitateetan: 3 puntu ikasturteko.

Euskara irakatsi izana euskaltegi eta ikastetxeetan: 2 puntu ikasturteko.

Bestelako hizkuntzak irakatsi izana unibertsitatean: puntu 1 ikasturteko.

Bestelako hizkuntzak irakatsi izana ikastetxeetan: 0.5 puntu ikasturteko.

3.– EAEko hizkuntza ofizialak ez diren beste hizkuntzak ezagutzea eta agiri ofizial bidez egiaztatuta izatea, Gehienez 3 puntu, hizkuntza bakoitzeko, irizpide hauen arabera, baldin tokian tokiko unibertsitatearen berariazko eskakizuna ez bada, betiere:

A2 = 0.25 puntu.

B1 = 0.50 puntu.

B2 = 0.75 puntu.

C1 = puntu 1.

C2 = 1.5 puntu.

4.– Bestelako prestakuntza. Gehienez 5 puntu, irizpide hauen arabera, tokian tokiko unibertsitatearen berariazko eskakizuna ez bada, betiere:

Euskararekin edo euskal gaiekin zuzenean loturiko doktoregoa: 5 puntu.

Euskararekin edo euskal gaiekin zuzenean loturiko doktoregoa egiten ari diren ikasleak: 3 puntu.

Beste Hizkuntzekin edo hezkuntzarekin erlazionatutako doktoregoa: 2 puntu.

Bestelako doktoregoa: puntu 1.

Euskararekin edo euskal gaiekin zuzenean loturiko masterra. Euskal filologia lizentzia egin dutenei maila hau: 3 puntu. MECES baliokidetzaren arabera.

Euskararen edo euskal gaien masterra egiten ari diren ikasleak, amaituta eta defentsa egiteke: 1,5 puntu.

Hezkuntzarekin edota beste hizkuntzekin erlazionaturiko masterra/ ikerketarako nahikotasunaren aitortza arlo horretan. Hezkuntzan Lizentziatura egin dutenei maila hau aitortzen zaie, MECESen baliokidetasunaren arabera: puntu 1.

Bestelako masterra edo ikasketa aurreratuen ziurtagiri diploma/ikerketarako nahikotasunaren aitortza arlo horretan; MECES baliokidetzaren arabera: 0,5 puntu.

Atzerriko Unibertsitateetan euskara irakasteko prestakuntza ikastaroa: puntu 1.

Atzerriko hizkuntza gisa hizkuntzak irakasteko prestakuntza ikastaroa: 0,15 puntu.

IGI-CAP: 0.5 puntu.

Glotodidaktika ikastaroa: 0.5 puntu.

Excellence in Basque Studies/Bikaintasuna Euskal Ikasketetan ikastaroa: 0.25 puntu.

Egonaldiak, ikerketarako euskararekin zerikusia dutenak. Egonaldi akademikoa gutxienez jarraian 4 astekoa izan beharko da: 0,1 puntu hilabeteko. Gehienez ere puntu 1.

Egonaldiak, ikerketarako beste hizkuntzekin/hezkuntzarekin zerikusia dutenak. Egonaldi akademikoa gutxienez jarraian 4 astekoa izan beharko da: 0,05 puntu hilabeteko. Gehienez ere 0,75 puntu.

Espainiar Estatutik kanpo egindako Erasmus programako egonaldiak. Egonaldi akademikoa gutxienez jarraian 4 astekoa izan beharko da 0,02 puntu hilabeteko. Gehienez ere 0,5 puntu.

Espainiar Estatutik kanpo lanean arituta egindako egonaldiak, gutxienez jarraian 4 astekoa izan beharko dira: 0,01 puntu hilabeteko. Gehienez ere 0,5 puntu.

5.– Proiektu pedagogikoa. Gehienez 5 puntu.

Proiektu pedagogikoaren ebaluazioan, irizpide hauek erabiliko dira, bai euskarako, bai euskal kulturako programazioa aztertzean: zehaztasuna, tokian tokiko unibertsitatearekiko eta hartzaileekiko egokitasuna eta koherentzia atal hauetan (helburuak, edukiak, metodologia, baliabideak eta bibliografia). Proiektu pedagogikoko gehieneko puntuazio hori, aipatutako atal horietako bakoitzean lortutako puntuaren batezbestekoa izango da.

6.– Beste meritu batzuk: gehienez 2 puntu. Honako hauek hartuko dira kontuan: euskal kulturarekin zerikusia duten jardueretako antolakuntza, argitalpenak, lan eskarmentua humanitateen irakaskuntzan. Irakaskuntzako egindako lan eskarmentuari dagokionez lan egindako ordu kopuru zehatza eta lan hori zein hizkuntzatan egin den/irakaskuntzan emandako gaia zein izan den frogatzeko modua eman beharko da (kontratua/ziurtagiri ofiziala) eskarmentu hori baloratu ahal izateko.

12. artikulua.– Onartuen eta baztertuen zerrenda.

Hautagaien profila ezarritako baldintzekin bat datorrela egiaztatu ondoren, eta eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez hamabost eguneko epearen barnean, onartuen

eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Eusko Jaurlaritzako iragarki-taula elektronikoan. Ikusten bada eskabidea onartzeko eskatzen den dokumenturen bat falta dela edo forma-akatsak daudela, edo balorazioa egiteko aurkeztu diren dokumentuetan akatsak daudela, eskatzaileei jakinaraziko zaie 10 egun balioduneko epea dutela akatsa zuzentzeko edo aurkeztu beharreko agiriak aurkezteko.

Era berean, ohartarazi egingo zaie ezen, epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela, edo dagokien izapidea egitea galduko dutela. Epe hori igarota, Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpenez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Eusko Jaurlaritzako iragarki-taula elektronikoan.

Hautapen-batzordeak, behin betiko zerrendako hautagaien merituak 11. artikuluan agertzen diren irizpideen arabera aztertuta eta hautapen batzordeak ezarritako hurrenkeraren arabera, Etxepare Euskal Institutuak hiru proposatuko ditu. Unibertsitateak hiru horien artean egokien deritzona aukeratuko du.

Hiru horiek aztertuta, unibertsitateak hautagai egokirik ez dagoela irizten badio, zerrendaren hurrenkerari jarraituta, ahal bada Etxepare Institutuak zerrendako hiru hautagai berri proposatuko dizkio. Unibertsitateak hurrengo dauden hautagaien artean aukeratu ahal izango du irakurletzat nahi duena.

Irakurlearen egokitasuna baloratzeko, unibertsitateko ordezkariak eskubidea izango dute proposatutako hiru hautagaiak elkarrizketa batera deitzeko.

Deialdi honetan eskainitako plaza esleitu gabe gelditu ahal izango da kasu hauetan:

– Eskabide bat bera ere aurkeztu ez bada.

– Deialdian eskatzen diren baldintzak betetzen ez badituzte hautagaiek.

Hautagairik aurkezten ez bada edo ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badituzte, Etxepare Euskal Institutuak aurreko deialdietako hautagaiengana jo ahal izango du, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kasu horretan, lehentasuna emango zaio deialdi honetan jasotako irizpideen arabera puntuazio handiena lortzen duenari. Hala ere lanpostua ezin bada bete, beste deialdi bat egingo da.

– Deialdi hau argitaratu ondoren, unibertsitateak Institutuaren eta bien arteko lankidetzaren hitzarmenaren ezarritako baldintzak aldatzen dituenean edo alde bakoitzari egotzi ezin dakioken arrazoiengatik hitzarmena gauzatzeko ez bada edo bertan behera gelditzen bada.

13. artikulua.– Hautagairik aurkezten ez denerako jarraibideak.

Hautagaitzarik aurkezten ez bada edo ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen ez badira, Etxepare Euskal Institutuak aurreko urteetako edo irakurleen beste deialdi batzuetako hautagaiengana jo ahal izango du, betiere ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Kasu honetan, deialdi honetan jasotako irizpideen arabera puntuaziorik handiena lortzen duenari emango zaio lehentasuna. Lanpostua betetzerik ez badago, beste deialdi bat egingo da.

14. artikulua.– Ebazteko eta izapideak egiteko organo eskuduna.

Etxepare Euskal Institutuaren zuzendariak ebazteko du deialdi hau, zioak behar bezala azalduz, Etxepare Institutuak unibertsitateari proposatutako hautagaiak zehaztuz. Unibertsitateak hartuko du azken erabakia.

Ebazpena Eusko Jaurlaritzako iragarki-taula elektronikoan argitaratuko da.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria izango da organo eskuduna betearaztean sor daitezkeen zalantzak eta gertaerak kudeatu eta argitzeko.

15. artikulua.– Lanpostua esleitzea.

Unibertsitateak hala eskatzen badu, hautatuak medikuaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko du, bere esku utzitako funtzioak inolako eragozpenik gabe bete ditzakeela egiaztatzen duena. Gainera, tokian tokiko unibertsitateko euskara eta euskal kulturako irakurle izaera onartu beharko du, xede horretarako dokumentu bat sinatuz eta halaber, dagokion hautagaitzako harrera saioko agiriak ere sinatu beharko ditu.

16. artikulua.– Lan-poltsa, ukoak eta ordezkapenak.

Behin unibertsitateko irakurlea aukeratua izan denean, irakurletzarako hautatuak izan ez diren hautagaiekin osatuko da lan-poltsa eta hautapen batzordeak emandako puntuazioaren arabera hurrenkera jarraituko du. Etxepare Euskal Institutuak irakurle postuan hutsuneak sortzen direnean, lan-poltsara jotzeko aukera izango du.

Hautatuak 2025-2026 ikasturteari dagokion lan jarduna amaitu baino lehenago uko egiten badio bere lanpostuari, ezingo du berriz hautagai izan Etxepare Euskal Institutuko irakurleak hautatzeko hurrengo deialdietan, bere ukoa behar bezala justifikatutako ezinbesteko arrazoietan oinarritu ezean.

Aurretik aipatutako ukoa onartzen bada, Etxepare Euskal Institutuak dagokion lan-poltsara jotzeko aukera izango du.

XEDAPEN GEHIGARRIA.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Eskatzailearen datu pertsonalak erabiliko dira, eta tratamendu-jarduera honi erantsiko zaizkio: Euskal hizkuntza eta kultura irakurleak eta katedretarako irakasle gonbidatuak.

Arduraduna: Etxepare Euskal Institutua.

Helburua: Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko unibertsitateetara bidalitako euskal hizkuntza eta kultura irakurleen zein katedretako irakasle gonbidatuen erregistroa eta kudeaketa.

Legitimazioa:

- Tratamendua beharrezkoa da, aplikagarriak diren lege-eginbideak betetzeko.
- Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– 3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua Sortzekoa eta Arautzekoa (EHAA 2007-05-10, 89. zk.)

Hartzaileak: ez da daturik lagatzen.

Eskubideak: datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du eskatzaileak, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: web-orri honetan kontsulta daiteke Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/057400-capa2-eu.shtml>

Araudia:

– Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra (www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpdp/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa (www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

ID: 0574.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa jar diezaioke interesdunek EEIko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sortuko ditu ondorioak.

Donostia, 2024ko abenduak 11.

Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria,
IRENE LARRAZA AIZPURUA.